| | |
|---|---|
| UAOaren 67,2 artikuluari jarraiki, akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira. | De acuerdo con el art. 67,2 del ROP, la presente Acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión. |
| Honako hau da artxiboaren identifikazio kodea: | El fichero resultante se identifica con el siguiente código: |

eueTyxsAdSkEkq2bHIUb39LcfeoFmXfyTZKxzOeq2AI=

| | |
|---|---|
| Grabazioa URL honetan aurki daiteke: | La grabación está disponible en la URL: |

https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.PLENOS.2021110401

# VITORIA-GASTEIZKO UDALBATZAK 2021EKO AZAROAREN 4AN EGINDAKO APARTEKO ETA PREMIAZKO BILKURAREN AKTA

# ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA Y URGENTE CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL DÍA 4 DE NOVIEMBRE DE 2021

---------------------------------------------------------

**ALKATE-LEHENDAKARIA** / ALCALDE-PRESIDENTE:
Excmo. Sr. D. Gorka Urtaran Agirre jauna (EAJ-PNV)

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES:
D. Iñaki Gurtubai Artetxe jauna (EAJ-PNV)
Dª. Ana Oregi Bastarrika andrea (EAJ-PNV)
D.ª Livia Claudia López Gutiérrez andrea (EAJ-PNV)
D. César Fernández de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV)
D.ª Miren Fernández de Landa Ruiz andrea (EAJ-PNV)
Dª. Maider Etxebarria García andrea(PSE-EE)
D. Jon Armentia Fructuoso jauna(PSE-EE)
Dª. María Ángeles Gutiérrez Ondarza andrea (PSE-EE)
D. Borja Rodríguez Ramajo jauna (PSE-EE)
Dª Estibaliz Canto Llorente andrea (PSE-EE)
D. Igor Salazar Ochoa jauna (PSE-EE)
D. Félix González San Vicente jauna (EH BILDU GASTEIZ)
Dª. Rocio Vitero Perez andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D.ª Iratxe López de Aberasturi Saez de Vicuña andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Alberto Porras Conde jauna (EH BILDU GASTEIZ)
D.ª Amancay Villalba Eguiluz andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Xabier Ruiz de Larramendi Arana jauna (EH BILDU GASTEIZ)
Dª. Ainhoa Domaica Goñi andrea (PP)
D. Miguel Garnica Azofra jauna (PP)
D. Alfredo Iturricha Yániz jauna (PP)
Dª. Elisabeth Ochoa de Eribe Roman andrea(PP)
D. Óscar Fernández Martín jauna (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)
D.ª María Gema Zubiaurre Urquire andrea (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)
D.ª Garbiñe Ruíz Noriega andrea (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)

**UDALBATZAREN BEHIN BEHINEKO IDAZKARI OROKORRA** / SECRETARIO GENERAL ACCIDENTAL DEL PLENO:
D. Martin Gartziandia Gartziandia jauna.

Vitoria-Gasteizko udaletxean, 2021eko azaroaren 4an, goizeko 12:35ak zirela, udalbatza bildu da aparteko eta premiazko bilkuran eta lehen deialdian, Gorka Urtaran Agirre alkate jauna lehendakari zela, eta goian aipatzen diren zinegotziak bertan izanik. Bertan ziren, orobat, udalbatzaren behin behineko idazkari orokorra Martin Gartziandia Gartziandia jauna, zeinek ematen baitu bilkuran jazotakoaren fede.

En la Casa Consistorial de la Ciudad de Vitoria-Gasteiz, siendo las 12:35 horas del día 4 de noviembre de 2021, se reunió en sesión extraordinaria y urgente el Ayuntamiento Pleno bajo la Presidencia del Excmo. Sr. Alcalde, don Gorka Urtaran Agirre, con asistencia de los Sres. Concejales que más arriba se expresan, encontrándose asimismo presente el Secretario General accidental del Pleno, don Martin Gartziandia Gartziandia, que da fe del acto.

Ez da bertan izan Ruiz Escudero Ezcurra jauna (EAJ-PNV) eta Comerón Refojos andrea (PP) zeinek agertu ezina azaldu baitute.

No asisten el Sr. Ruiz Escudero Ezcurra (EAJ-PNV y la Sra. Comerón Refojos (PP), que justifican su ausencia.

Lehendakariak bilkurari hasiera eman ondoren, adierazi da ezen, Toki Erakundeen Antolakuntza, Jardunbide eta Erregimen Juridikoaren Arautegiaren ildotik, gai-zerrendako lehenengo gaia osoko bilkuraren premiari buruzko aldarrikapena dela.

Abierta la sesión, por la Presidencia se indica que, de conformidad con el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el primer punto del Orden del Día es el pronunciamiento de la Corporación sobre la urgencia de la misma.

Hortaz, bozketa egin da **aparteko bilkura egiteko premiaz, eta aho batez onetsi da**

En consecuencia, se somete a votación el pronunciamiento del Pleno sobre la **urgencia de esta sesión extraordinaria, quedando aprobada por unanimidad de los asistentes.**

Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.PLENOS.2021110401?ts=382

**2. GAIA**
**ASUNTO Nº 2**

-

**GAIA: HASIERAKO ONESPENA EMATEA GASTEIZKO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN EGIN NAHI DEN EGITURAZKO XEDAPEN ALDAKETA BATI, GASTEIZKO 37 POLIGONOKO (MERCEDES BENZ) 158 ETA 166 LURSAILEN HIRIGINTZA-PARAMETROAK BIRDEFINITZEKO.**

**ASUNTO: APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL ESTRUCTURAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE VITORIA-GASTEIZ PARA REDEFINIR LOS PARÁMETROS URBANÍSTICOS DE LAS PARCELAS 158 Y 166 DEL POLÍGONO 37 DE VITORIA-GASTEIZ (MERCEDES BENZ).**

## ERABAKI-PROPOSAMENA

## PROPUESTA DE ACUERDO

Gasteizko 37 poligonoko (Mercedes Benz) 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketa ikusi da. IDOM Consulting, Engineering, Architecture SAUk landu du hori, Mercedes Benz enpresaren ordezkariek eskaturik. Horri buruz oharpen hauek egin dira:

A la vista de la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana del término municipal de Vitoria-Gasteiz para redefinir los parámetros urbanísticos de las parcelas 158 y 166 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz (Mercedes Benz) elaborada por IDOM Consulting, Engineering, Architecture, SAU a solicitud de los representantes de la empresa Mercedes Benz se formulan las siguientes consideraciones:

Oroitidazkiaren argitan, aldaketaren helburu nagusia da 37 poligonoko 158 eta 166 lursailen eraikigarritasuna eta okupazioa handitzea, Mercedes-Benzen produkzio- eta industria-prozesuak garatu eta aldatzeak etorkizunean ekar ditzakeen eraikuntza-beharrei erantzuteko. Aldaketaren

A la luz de la memoria, el objeto principal de la modificación es el aumento de la edificabilidad y ocupación de las parcelas 158 y 166 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz para dar respuesta a la evolución futura de las necesidades edificatorias, debidas al desarrollo y modificación de los procesos

oroitidazkiaren arabera, helburu hauek lortu nahi dira:

productivos e industriales de Mercedes-Benz. Así, de acuerdo con la memoria de la modificación, se persigue lo siguiente:

- Produkzio- eta industria-arloa gara daitezen ahalbidetzea, Mercedes-Benzen oraingo eta geroko instalazioen funtzionaltasuna eta jarraipena bermatzearren.

- Facilitar el desarrollo del área productivo-industrial que garantice la funcionalidad y continuidad de las actuales y futuras instalaciones de Mercedes- Benz.

- Udalerriko biztanleriarentzat gizarte eta ekonomia onurak sortuko dituzten jarduera ekonomikoak sendotu eta garatuko dituen antolamendu bat proposatzea.

- Proponer una ordenación que fortalezca y desarrolle actividades económicas que generen beneficios sociales y económicos para la población del municipio.

- Inguruko ingurumen-balioak errespetatuko dituen antolamendu bat proposatzea.

- Proponer una ordenación que sea respetuosa con los valores medioambientales del entorno.

- Kalifikazio bikoitza sortzea, Mercedes Benz lantegiaren mendebaldean Zurrupitieta kaleko zubiaren proiekzioaren azpitik —bide publikoaren kalifikazioa du—pasabide bat egitea ahalbidetuko duena, bide pribatuaren kalifikazioarekin.

- Generar una doble calificación, que permita un paso subterráneo bajo la proyección del puente de la calle Zurrupitieta (calificación Viario Público), al oeste de la fábrica de Mercedes Benz, bajo la calificación de Viario Local Privado.

Gasteizko 37 poligonoko 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko HAPOan egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketaren oroitidazkiaren arabera, aldaketa horrek jarduera nagusi hauek proposatzen ditu:

"

Según la memoria de la modificación estructural de PGOU para redefinir los parámetros urbanísticos de las parcelas 158 y 166 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz, la modificación de PGOU plantea las siguientes actuaciones principales:

1. Hornidura-jarduketa bat (AD-5) zedarritzea lehen trenbidearen ST-4) bitarteko sektorea zenaren iparraldean eta hegoaldean dauden lursailetan (P-37-158 eta P-37-166, hurrenez hurren), Mercedes Benz oraingo kokalekuan garatzea

1. Delimitar una Actuación de Dotación (AD-5) en el ámbito de las parcelas localizadas al norte (P.37-158) y sur (P-37-166 del antiguo Sector Transitorio ST-4) de la vía férrea, que permita el desarrollo de Mercedes Benz

ahalbidetzeko.

en la ubicación actual.

2. Hornidura-jarduketaren eremuari dagokion lurzoruaren okupazioa eta eraikigarritasuna zehaztea (593.207 metro koadro); eraldatzeko lanek Mercedes Benzek inguruko hiri-eremuarekin duen harremana nabarmen ez ukitzea ahalbidetuko du horrek.

2. Determinar la ocupación del suelo y la edificabilidad del ámbito de la Actuación de Dotación (593.207 metros cuadrados), hecho que posibilitará las obras de transformación de Mercedes Benz sin alterar significativamente su relación con el ámbito urbano del entorno.

3. Trenbideak hornidura-jarduketan eragingo duen zatiketa gainditzeko konexio berri bat sortzea, gainetik joango den pasabide baten bitartez. Zehazki, jarduera-eremuko P-37-158 eta P-37-166 lursailak konektatzea ahalbidetuko du horrek.

3. Generar una nueva conexión, mediante paso superior, para salvaguardar la división generada por la vía férrea en la Actuación de Dotación. Específicamente permitirá conectar las dos parcelas, P-37-158 y P-37-166, del ámbito de actuación.

4. Kalifikazioen mugak zuzentzea trenbidearekiko mugei dagokienez, zehazki, P-37-158 lursailaren hegoaldean dauden mugak, industria-lursailaren mugak berriro zedarrituz eta erabilerarik ez duten trenbide-eremu zaharrak industria-erabilerara gehituz. Azalerako 3.237 metro koadro gehitzea dakar horrek, eta lurzoruaren kalifikazioa garraio eta trenbide-sarearen kalifikaziotik produkzio eta industriarako lurzoruaren erabilerara aldatzea.

4. Rectificar los límites de las calificaciones en su colindancia con la vía férrea, específicamente los linderos al sur de la parcela P.37-158, redelimitando la parcela industrial e incorporando antiguas áreas ferroviarias en desuso al uso industrial. Esto supone un incremento de 3.237 metros cuadros de superficie y requiere de un cambio en la calificación del suelo de Transporte – Red de ferrocarril al uso del suelo Productivo - industrial.

5. Kalifikazio bikoitzaren bitartez, Mercedes Benz lantegiaren mendebaldean Zurrupitieta kaleko zubiaren proiekzioaren azpitik joango den lurrazpiko

5. Recalificar como Viario Local Privado, mediante una doble calificación, un paso subterráneo bajo la proyección del puente de la calle Zurrupitieta al oeste de la fábrica de Mercedes Benz, de unos

pasabidea —275 metro koadroko azalera eta 9 metroko zabalera— tokiko bide pribatu gisa birkalifikatzea; haren gaineko zubiak bide publikoaren kalifikazioa izaten jarraituko du. "

275 metros cuadrados y 9 metros de ancho, sobre el cual dicho puente permanecerá con su calificación de Viario Público. “

Orain arte, tramitazio hau izan du Gasteizko 37 poligonoko 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko aldaketak:

Hasta la fecha, la modificación estructural del Plan General de Ordenación Urbana del término municipal de Vitoria-Gasteiz para redefinir los parámetros urbanísticos de las parcelas 158 y 166 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz ha tenido la siguiente tramitación:

1. 2021eko otsailaren 26an, Mercedes Benzen ordezkari batek Gasteizko HAPOaren egiturazko aldaketa baten tramitazioa eskatu zuen, Mercedes lantegiak lehen S-4) bitarteko sektorea zenaren iparraldean eta hegoaldean okupatzen dituen lursailen (P-37-158 eta P-37-166, hurrenez hurren) eraikigarritasun- eta okupazio-parametroak handitzeko. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotziak 2021eko martxoaren 12an emandako probidentziaren bidez tramitera onartu zen HAPOaren aldaketa, eta hari laguntzen zion herritarren partaidetza-programa onetsi.

1. El 26 de febrero de 2021 por representante de Mercedes Benz se solicitó la tramitación de una modificación estructural del PGOU de Vitoria-Gasteiz para el incremento de los parámetros de edificabilidad y ocupación de las parcelas ocupadas por la factoría Mercedes de las parcelas localizadas al norte (P.37-158) y sur (P-37-166 del antiguo Sector Transitorio ST-4). Por Providencia de la Concejala de Territorio y Acción por el Clima, el 12 de marzo de 2021 se admitió a trámite la modificación de PGOU y se aprobó el programa de participacion ciudadana acompañado al mismo.

2. Martxoaren 22ko ALHAOn (32. zk.) argitaratu zen herritarren parte hartzeko programa. 2021eko martxoaren 15etik 31ra bitartean egin zen aurretiko kontsulta publikoa, eta ez zen inolako iradokizunik jaso.

2. El programa de participación ciudadana se publicó en el BOTHA nº32 de 22 de marzo. La consulta pública previa se sustanció entre del 15 al 31 de marzo de 2021, sin que se recibiese sugerencia alguna.

3. 2021eko apirilaren 14an, Mercedes Benzen ordezkaritzak ingurumen-ebaluazio sinplifikatua abiarazteko dokumentazioa aurkeztu zuen Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan.

3. El 14 de abril de 2021 la representación de Mercedes Benz presentó en el Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística la documentación para el inicio de la evaluacion ambiental simplificada.

4. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotziak 2021eko apirilaren 23an emandako probidentziaren bidez, txosten hauek eskatu ziren, eta aipatutako erantzunak jaso dira:

4. Por providencia de la Concejala de Territorio y Acción por el Clima de 23 de abril de 2021 se solicitaron los siguientes informes, que obtuvieron las siguientes respuestas:

- Zortasun aeronautikoei buruzko txostena, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari: aldeko txosten baldintzatua jaso zen 2021eko uztailaren 22an. Aldaketaren dokumentazioa Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusira berriro bidaltzeko galdatu zen agiri horretan, behin betiko onespenaren aurretik berriro txostena egin zedin.

- Informe sobre servidumbres aeronáuticas a la Dirección General de Aviación Civil: informe favorable condicionado recibido el 22 de julio de 2021. En el mismo se exige remitir nuevamente la documentacion de la modificación a la Dirección General de Aviación Civil para que previo a la aprobación definitiva de la modificación la misma vuelva a ser informada.

- Urei buruzko txostena, URAri eskatua: 2021eko irailaren 14an jaso zen txostena; bertan eskatzen da eransteko aurreikusitako ur-eskari berrien kalkulua eta ente kudeatzailearen txostena, azpiegitura eta gaitasun nahikoa dagoela justifikatzeko.

- Informe de Aguas solicitado a URA: informe recibido el 14 de septiembre de 2021 en el que se requiere adjuntar una estimación de las nuevas demandas de agua previstas y el informe del ente gestor en el que se justifique que se cuenta con infraestructura y capacidad suficiente.

- Trenbide Segurtasuneko Estatuko Agentziari eskatutako txostena: 2021eko maiatzaren 26an jasotako txostenak ondorioztatzen zuen ez zuela ezer esatekorik trenbide

- Informe solicitado a la Agencia Estatal de Seguridad Ferroviaria: el informe recibido el 26 de mayo de 2021 concluía que en relación a las competencias

eskumenei zegokienez.

ferroviarias no tenían nada de lo que informar.

- Telekomunikazioekin lotutako araudiari buruzko txostena, Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioko Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzari eskatua: 2021eko uztailaren 5eko txostenean, aldeko irizpena eman zuten telekomunikazioen sektoreko araudiari dagokionez.

- Informe relativo a la normativa de telecomunicaciones solicitado a la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones e Infraestructuras Digitales del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital: en informe de 5 de julio de 2021 informaron favorablemente en cuento a la normativa sectorial de telecomunicaciones.

- Ingurumen-ebaluazio estrategikoa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari eskatua: 2021eko ekainaren 4an, Eusko Jaurlaritzak eskatu zuen inpaktu akustikoari buruzko azterlana aurkezteko, edo aurkeztu behar ezaren justifikazio arrazoitua; aldaketaren idazleei eta sustatzaileei errekerimenduaren berri eman zitzaien, eta 2021eko ekainaren 11n aurkeztu zuten inpaktu akustikoari buruzko azterlana. 2021eko abuztuaren 23an aurkeztu zen ingurumen-ebaluazio estrategikoa, eta haren arabera, "*ez zen aurreikusten ingurumenean eragin negatibo adierazgarririk izaterik, eta horrenbestez, ez zen beharrezkoa ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egitea*". Hala ere, zenbait neurri zuzentzaile eta babesle ezartzen ziren, zeinak dagoeneko helarazi baitzaizkie aldaketaren sustatzaile eta idazleei, dagozkion ondorioetarako.

- Evaluación Ambiental Estratégica solicitada al Departamento de Medio Ambiento del Gobierno Vasco: el 4 de junio de 2021 el Gobierno Vasco requirió la presentación de un estudio de impacto acústico o la justificación razonada de su inncesariedad la documetacion, requerimiento trasladado al equipo redactor y promotores de la modificación que el 11 de junio de 2021 presentaron el estudio de impacto acústico. El 23 de agosto de 2021 se emitió el Informe Ambiental Estratégico que declaraba que en la modificación "*no se prevén efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria.*" Aún así, se imponen una serie de medidas correctoras y protectoras que ya han sido trasladadas a los promotores y redactores de la modificación para sus efectos oportunos.

- Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Errepide Zerbitzuari eskatutako txostena. Irailaren 6an Gasteizko

- Informe solicitado al Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad de la Diputacion Foral de Álava, Servicio de Carreteras, Servicio que en informe

Udalean erregistratutako txostenean, zerbitzu horrek adierazi zuen aldaketaren eremua Arabako Foru Sarearen babes-eremuetatik kanpo dagoela, baita aipatutako sailak etorkizunerako dituen proiektu eta jardueretatik kanpo ere eta, beraz, alde horretatik ez duela inolako eraginik ikusten.

registrado el 6 de septiembre en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz señala que el ámbito de la modificación se encuentra fuera de las zonas de protección de las carreteras de la Red Foral de Álava y fuera de los ámbitos de futuros proyectos y/o actuaciones del Departamento, por lo que no se observa ninguna afección al respecto.

5. Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak txostena egin zuen apirilaren 27an, eta hirigintza-agiria osatu eta zuzentzeko eskatzen zuen, hasierako onespena ematearren; 2021eko maiatzaren 10ean eman zitzaion Mercedes Benzi horren berri. 2021eko ekainaren 9an erantzun zion Mercedes Benzek errekerimenduari.

5. El 10 de mayo de 2021 Mercedes Benz fue notificado del informe de 27 de abril de la Arquitecta del Servicio de Planeamiento y Ejecución de la Ordenación Urbanística en el que solicitaba completar y subsanar el documento urbanístico para su aprobación inicial. El 9 de junio de 2021 Mercedes Benz dió respuesta a ese requerimiento.

6. 2021eko maiatzaren 11n, Mercedes Benzen ordezkariak dokumentazio berria aurkeztu zuen alderdi hauen inguruan, eta dosierraren oroitidazkiri erantsi zitzaion: hizkuntza-eragina, ekintzen laburpena eta genero-azterlana.

6. El 11 de mayo de 2021 por el representante de Mercedes Benz se presentó nueva documentacion que se incorporó a la memoria del expediente: impacto lingüístico, resumen ejecutivo y el estudio de género.

7. 2021eko irailaren 23an dokumentazio berria aurkeztu zuen Mercedes Benzek, eta atzera ere 2021eko irailaren 28an, aurretik aurkeztutakoa ordezteko. 2021eko irailaren 28an aurkeztutako dokumentazioa da hasierako onespenari dagokiona eta hala erabakiz gero, jendaurrean jarriko dena.

7. El 23 de septiembre de 2021 y el 28 de septiembre de 2021, en sustitución de la documentación presentada previamente, Mercedes Benz, presentó nueva documentación. La documentación presentada con fecha 28 de septiembre de 2021 es la que es objeto de aprobación inicial, y de acordarse, de exposición pública.

8. 2021eko urriaren 15ean, AMVISA, eremuan dauden hornidura- eta saneamendu-sareei buruz eta

8. El 15 de octubre de 2021 se ha recibido el informe favorable

haien gaitasunari buruz alderako txostena egin du.

de AMVISA en cuanto a redes de abastecimiento y saneamiento en el ámbito y capacidad de las redes existentes se refiere.

9. 2021eko urriaren 22an, Gasteizko 37 poligonoko (Mercedes Benz) 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen aldaketaren proiektua onetsi du Tokiko Gobernu Batzarrak; IDOM Consulting, Engineering, Architecture SAUk landu du hori, Mercedes Benz enpresaren ordezkariek eskaturik.

9. El 22 de octubre de 2021 la Junta de Gobierno Local ha aprobado el proyecto de modificación estructural del PGOU de Vitoria-Gasteiz para redefinir los parámetros urbanísticos de las parcelas 158 y 166 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz (Mercedes Benz) elaborada por IDOM Consulting, Engineering, Architecture, SAU a solicitud de los representantes de la empresa Mercedes Benz.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.2.b artikuluaren arabera, dosierrean jasota dagoen aldaketa egiturazkoa da, hiri-lurzoruan hirigintza-eraikigarritasuna finkatzen duelako.

De acuerdo con el artículo 53.2.b de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo la modificación que obra en el expediente es estructural por cuanto en suelo urbano fija la edificabilidad urbanística.

46/2020 Dekretuaren 27. artikuluaren arabera, "*Udalak hasiera batean onetsiko du plan orokorraren hasierako onespen-dokumentua eta jendaurrean jarriko du, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, berrogeita bost egun balioduneko epean, iragarkia dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratzen denetik aurrera; horrez gain, udal-mugarteko egunkaririk zabalduenetako batean edo batzuetan argitaratuko du. Informazioa emate aldera, bere egoitza elektronikoan eta egoki deritzon gainerako komunikabideetan ere argitaratuko du. Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei ere emango zaie hasierako onespenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; eta, Arabako udalen kasuan, baita udalerriko administrazio-batzarrei*

De acuerdo con el artículo 27 del Decreto 46/2020 "*el ayuntamiento aprobará inicialmente el documento de aprobación inicial del plan general y lo someterá a información pública, junto con el Estudio Ambiental Estratégico, por el plazo mínimo de cuarenta y cinco días hábiles a partir de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico publicándose igualmente en el diario o diarios de mayor circulación en el término municipal. A efectos meramente informativos lo publicará también en su sede electrónica y en los demás medios de comunicación que considere pertinentes. Igualmente se notificará la aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales, y en el caso de los ayuntamientos alaveses*

*ere*".

*también a las juntas administrativas del municipio.*"

46/2020 Dekretuaren 5.3 artikuluaren arabera, plangintza aldatzeko dosierretan ekintzen laburpena jarri behar da jendaurrean.

De acuerdo con el artículo 5.3 del Decreto 46/2020 en los expedientes de modificación de planeamiento debe ser expuesto al público un resumen ejecutivo.

Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoari jarraiki, hasiera batean onetsitako plan orokorraren aldaketei Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluaren aginduzko txostena erantsi behar zaie. Gainera, 2/2006 Legearen 109.2 artikuluari jarraikiz, Plangintzarako Aholku Kontseiluak dokumentazioaren berri izango du eta, nolanahi ere, txostena aurkeztuko du plan orokorraren idazketa teknikoa hasi eta gero. Gasteizko Plangintzarako Aholku Kontseiluaren araudiaren 6.11.a artikuluaren arabera (ALHAO, 11. zk., 2018/01/26), Plangintzarako Aholku Kontseiluak horri buruzko txostena egin behar du nahitaez.

De acuerdo con la Disposición Adicional Cuarta del Decreto 105/2008, de 3 de junio, las modificaciones de Plan General aprobadas inicialmente deben contener el informe preceptivo del Consejo Asesor de Planemiento Municipal. Además, de acuerdo con el artículo 109.2 Ley 2/2006 el Consejo Asesor de Planemiento conocerá e informará, en todo caso, una vez iniciada la redacción técnica del plan general. Atendiendo al artículo 6.11.a del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento de Vitoria-Gasteiz (BOTHA nº 11 de 26/1/2018) es preceptiva la emisión de informe del Consejo Asesor de Planeamiento.

Agiria jendaurrean erakusteko 45 egun baliodunenko epeak iraun bitartean, agiria azaltzeko saio bat egin beharko da eta Plangintzarako Aholku Kontseilua bildu, agiriari hasierako onespena eman ondoren HAPOaren egiturazko aldaketaren berri izan dezan.

Durante el periodo de exposición pública de 45 días hábiles del documento se deberá convocar una sesión explicativa y reunir al Consejo Asesor de Planeamiento para que conozca de la modificación estructural del PGOU tras la aprobación inicial del documento.

Udalbatzari dagokio planeamendu orokorrari hasierako onespena ematea, bai eta hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako instrumentuen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespena ematea ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 123.1.i artikuluak dioenaren arabera.

El artículo 123.1.i de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local, atribuye al Pleno la aprobación inicial del pleamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística.

Proposatzen den HAPOaren egiturazko aldaketarekin bat etorriz, dosierraren parte diren agiri urbanistikoek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen dutela, ikusita aipatutako aginduak zein aplikatu beharreko beste guztiak, eta aipatutako legearen 122.4.a) artikuluak aitortzen dizkion eskumenak baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau har dezan proposatzen dio Gasteizko Udaleko Udalbatzari:

**ERABAKIA**

**LEHENA.-** Hasierako onespena ematea Gasteizko 37 poligonoko (Mercedes Benz) 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen aldaketari; IDOM Consulting, Engineering, Architecture SAUk landu du hori, Mercedes Benz enpresaren ordezkariek eskaturik, eta 2021eko irailaren 28an aurkeztutako azken dokumentazioaren arabera.

**BIGARRENA.-** Aldaketaren inguruko agiriak eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea eta horren berri ematea, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta probintzian zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta 45 egun balioduneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan**.**

De conformidad con la modificación estructural del PGOU propuesta, cuya conveniencia y oportunidad se justifica en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vistos los preceptos a los que se ha hecho referencia y demás que resulten de aplicación, la Comisión de Territorio, en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 122.4.a) de la Ley antes citada, eleva al Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la adopción del siguiente

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana del término municipal de Vitoria-Gasteiz para redefinir los parámetros urbanísticos de las parcelas 158 y 166 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz (Mercedes Benz) elaborada por IDOM Consulting, Engineering, Architecture, SAU a solicitud de los representantes de la empresa Mercedes Benz, según la última documentación presentada el 28 de septiembre de 2021.

**SEGUNDO.-** Someter la documentación integrante de la modificación junto con el Estudio Ambiental Estratégico a información pública, mediante anuncios que se publicarán en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y el diario o diarios de mayor circulación en el mismo, con el fin de que cualquier entidad o persona interesada pueda examinar dicha documentación y presentar las alegaciones que estime convenientes en el plazo de 45 días

hábiles.

**HIRUGARRENA.-** Hasierako onespenaren berri ematea sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, administrazio batzarrei baldin eta horien eremuari eragingo balie, eta baita interesdunei ere.

**TERCERO.-** Notificar el acuerdo de aprobación inicial a las administraciones públicas con competencias sectoriales, a las Juntas Administrativas si les fuera de afección a su ámbito, y a las personas interesadas.

**LAUGARRENA.-** HAPOaren egiturazko aldaketa azaltzeko saio publiko bat antolatzea eta Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea hori buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldia egin bitartean.

**CUARTO.-** Convocar una sesión pública explicativa sobre la modificación estructural de PGOU y solicitar al Consejo Asesor del Planeamiento que emita informe sobre la misma durante el periodo de exposición pública.

**BOSGARRENA.-** URA-Uraren Euskal Agentziari txostena egin dezan eskatzea, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.k) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

**QUINTO.-** Solicitar a URA-Agencia Vasca del Agua la emisión de informe al efecto de lo dispuesto en el artículo 7.k) de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

Lurralde batzordeak **aldeko iritzia** eman du, honako bozketa honen ondorioz:

La Comisión de Territorio dictamina **favorablemente** la propuesta presentada como resultado de la siguiente votación:

**OSOKO BOZKETA**

GASTEIZKO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN EGIN NAHI DEN EGITURAZKO XEDAPEN ALDAKETA BATI, GASTEIZKO 37 POLIGONOKO (MERCEDES BENZ) 158 ETA 166 LURSAILEN HIRIGINTZA-PARAMETROAK BIRDEFINITZEKO HASIERAKO ONESPENA EMATEA, aurkeztutako erabaki-proposamenaren ildotik.

**VOTACIÓN DE TOTALIDAD**

APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL ESTRUCTURAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE VITORIA-GASTEIZ PARA REDEFINIR LOS PARÁMETROS URBANÍSTICOS DE LAS PARCELAS 158 Y 166 DEL POLÍGONO 37 DE VITORIA-GASTEIZ (MERCEDES BENZ), en los términos de la propuesta de acuerdo presentada.

BOZKETA HONEN ONDORIOZ

**APROBADA** CON LOS

**ONETSIA**:

**ALDE (15):**

Ruiz de Escudero jn. (EAJ/PNV)
Fernández de Landa and. (EAJ/PNV)
Oregi and. (EAJ/PNV)
Fernández de Landa jn. (EAJ/PNV)
Armentia jn. (PSE-EE)
Gutiérrez and. (PSE-EE)
Salazar jn. (PSE-EE)
Gonzalez jn. (EH BILDU GASTEIZ)
López de Aberasturi and. (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ruiz de Larramendi (EH BILDU GASTEIZ)
Garnica jn. (PP)
Ochoa de Eribe and. (PP)
Iturricha jn. (PP)
Fernández jn. (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)
Zubiaurre and. (EKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)

SIGUIENTES VOTOS:

**A FAVOR (15):**

Sr. Ruiz de Escudero (EAJ/PNV)
Sra. Fernández de Landa (EAJ/PNV)
Sra. Oregi (EAJ/PNV)
Sr. Fernández de Landa (EAJ/PNV)
Sr. Armentia (PSE-EE)
Sra. Gutiérrez (PSE-EE)
Sr. Salazar (PSE-EE)
Sr. González (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. López de Aberasturi (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ruiz de Larramendi (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Garnica (PP)
Sra. Ochoa de Eribe (PP)
Sr. Iturricha (PP)
Sr. Fernández (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)
Sra. Zubiaurre (ELKARREKIN VITORIA-GASTEIZ)

Hori dela eta, Udalbatzari honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

En virtud de lo anterior, se propone al Pleno la adopción del siguiente acuerdo:

**ERABAKIA**

**LEHENA.-** Hasierako onespena ematea Gasteizko 37 poligonoko (Mercedes Benz) 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen aldaketari; IDOM Consulting, Engineering, Architecture SAUk landu du hori, Mercedes Benz enpresaren ordezkariek eskaturik, eta 2021eko irailaren 28an aurkeztutako azken dokumentazioaren arabera.

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana del término municipal de Vitoria-Gasteiz para redefinir los parámetros urbanísticos de las parcelas 158 y 166 del Polígono 37 de Vitoria-Gasteiz (Mercedes Benz) elaborada por IDOM Consulting, Engineering, Architecture, SAU a solicitud de los representantes de la empresa Mercedes Benz, según la última documentación presentada el 28 de septiembre de 2021.

**BIGARRENA.-** Aldaketaren inguruko agiriak eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea eta horren berri ematea, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta probintzian zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta 45 egun balioduneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan**.**

**SEGUNDO.-** Someter la documentación integrante de la modificación junto con el Estudio Ambiental Estratégico a información pública, mediante anuncios que se publicarán en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y el diario o diarios de mayor circulación en el mismo, con el fin de que cualquier entidad o persona interesada pueda examinar dicha documentación y presentar las alegaciones que estime convenientes en el plazo de 45 días hábiles.

**HIRUGARRENA.-** Hasierako onespenaren berri ematea sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, administrazio batzarrei baldin eta horien eremuari eragingo balie, eta baita interesdunei ere.

**TERCERO.-** Notificar el acuerdo de aprobación inicial a las administraciones públicas con competencias sectoriales, a las Juntas Administrativas si les fuera de afección a su ámbito, y a las personas interesadas.

**LAUGARRENA.-** HAPOaren egiturazko aldaketa azaltzeko saio publiko bat antolatzea eta Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea hori buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldia egin bitartean.

**CUARTO.-** Convocar una sesión pública explicativa sobre la modificación estructural de PGOU y solicitar al Consejo Asesor del Planeamiento que emita informe sobre la misma durante el periodo de exposición pública.

**BOSGARRENA.-** URA-Uraren Euskal Agentziari txostena egin dezan eskatzea, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.k) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

**QUINTO.-** Solicitar a URA-Agencia Vasca del Agua la emisión de informe al efecto de lo dispuesto en el artículo 7.k) de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

**.- ALKATE JAUNA / SR. ALCALDE**.- Se somete a votación la Aprobación inicial de la modificación puntual estructural del Plan General de Ordenación Urbana del término municipal de Vitoria-Gasteiz para redefinir los parámetros urbanísticos de las parcelas 158 y 166 del polígono 37 de Vitoria-Gasteiz (Mercedes Benz).

.

Aurreko irizpena irakurri eta erabaki-proposamena bozkatuta, **BERTAN ZEUDEN ZINEGOTZIEK AHO BATEZ ONETSI DUTE.**

Leído el precedente dictamen y sometida a votación la Propuesta de Acuerdo, **QUEDA APROBADA POR UNANIMIDAD DE LOS CONCEJALES PRESENTES.**

Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.PLENOS.2021110401?ts=401

Bukatutzat eman da bilkura, 12:47an; neuk, Udalbatzaren behin behineko idazkari nagusiak, hala egiaztatzen dut hori guztia.

Se levantó la sesión siendo las 12:47 horas, de todo lo que yo, el Secretario General accidental del Pleno, certifico.

**D I L I J E N T Z I A**.- **Udalbatzak 2021eko azaroaren 4an** egindako ohiko bilkuraren akta honek 17 orri dituela jasota uzteko.

**D I L I G E N C I A**.- Para hacer constar que la presente Acta de la sesión ordinaria celebrada por el **Ayuntamiento Pleno** el día **4 de noviembre de 2021** consta de 17 hojas.

**UDALBATZAREN BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI OROKORRA**
**EL SECRETARIO GENERAL ACCIDENTAL DEL PLENO**